

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 24a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 2017rako aurrekontua banatzeko aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Mendekotasunaren Behatokiaren XVIII. Irizpenean aipatzen diren denbora errealeko informatizazio-sistemen eta jarraipen-eredu sistematizatuaren ezarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Mina Muga proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea indarrean dagoenetik Nafarroako administrazio publikoek erretiratutako sinboloei, sariei, izendapenei edo ohorezko tituluei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, erradiologoek hezur eta muskuluen erradiologiei lotuta egin beharreko txostenen atzerapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, txertaketa-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, inportazioak eta erkidego barreneko nahiz estatuarteko erosketak egin ordez hornidura endogea baliatzeko ekintza planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, lan-arriskuen prebentzioaren arloko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Andosilla, Azagra eta San Adriango enpresetan izandako elektrizitate-hornikuntzaren ezari eta mozketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, sare publikoko ikastetxeetako hobekuntza plan bati begira Hezkuntza Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuak eta Ebaluazio Zerbitzuak egindako edo aurreikusitako ebaluazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta irakaslez bestelako langileen aurka izandako eraso salatuak buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, fakultatibo espezialistei erretiroa nahitaez hartzeko adina bete arren jardunean jarraitu ahal izatea baimentzen dien Nafarroako Gobernuaren akordioan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua sartzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarritzko osasun-laguntzako eta osasun-laguntza espezializatuko nutrizionista-espezialitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, beren kondena atzerrian betetzen ari diren nafarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 2017rako aurrekontua banatzeko aurreikuspeni buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 2017rako aurrekontua banatzeko aurreikuspeni buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera bat egin du (9-17/PES-00072) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 2017rako aurrekontua banatzeko aurreikuspenari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2017ko otsailaren 23an, aipatutako parlamentariak informazioa eskatu zuen honako honi buruz: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 2017rako aurrekontua banatzeko aurreikuspenaren eta, zehazki, 900004-91100-4819-143105, kontu-sailaren, "PFEZaren % 0,7ko funtsa. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren" izenekoaren (1.762.913,00 €) arabera, 200.000 euro bideratuko dira Europar Errefuxiatutako Populazioarentzako Laguntza Humanitarioaren deialdira. Zehazki, honako galdera hauek egiten ditu:

1) Garapenerako Laguntza Ofizialetik funtsak kentzen ari al gara hortaz, garapen-bidean dauden herrialdeen kaltetan eta herrialde garatuen mesedetan?

Garapenerako Laguntza Ofizialaren kontzeptua ELGAko Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) zehaztutakoa da. Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak GLO

kontzeptuari buruz emandako agirian –"agiri hori eman zuen dohaintza-emaileei laguntzeko erabakitzen ea gastu batek Garapenerako Laguntza Ofizialaren irizpideak betetzen dituen, eta agiri Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) emanak dituen Informazio Estatistikoko Zuzentzarauen (Statistical Reporting Directives) osagarria da"–, gaur egungo egozpen arauen artean, GLBk hartutako honako kontzeptu hau ageri da:

Errefuxiatuei laguntza ematea: Garapen bidean dauden herrialdeetan errefuxiatuei laguntza ematea GLOtzat jo daiteke. Herrialde dohaintza-emailetara iristen diren eta garapen bidean dauden herrialdeetatik datozen errefuxiatuentzako laguntza ofiziala GLOtzat jo daiteke egonaldiaren lehengo 12 hilabeteetan, eta errefuxiatuak haien jatorrizko herrialdera berriz ere eramateak berekin dakartzan kostu guztiak ere deklaratu daitezke.

Irizpide hori sartzea pertsonentzako erreferentzian oinarritu da, eta ez horrenbestez bizi diren tokian, haiengan eragina duen neurrian.

Irizpide hori dela eta, GLOak bideratu dira garapen bidean dauden herrialdeetan egiten diren jardueretara, betiere GLOei buruz aipatutako irizpideak baldintza jarrita.

Galderan aipatzen den deialdiak, hau da, Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariaren otsailaren 13ko 3E/2017 FORU AGINDUAZ onetsitakoak –haren bidez larrialdietako ekintza humanitario espezializatuaren arloko dirulaguntzen deialdia egiten da 2017rako– bi modalitate ezartzen ditu, eta haietatik B modalitateari bideratzen zaizkio 20.000 euro. Honako hau da modalitate hori:

B) modalitatea. Ekintza humanitarioa garapen bidean dauden herrialdeetatik etorrita Europako herrialdeetan babesa eta/edo asiloa bilatzen duten pertsonekin. Laguntza hau pertsona horien behin-behineko bizi-baldintzak arintzeko da, eta

helburu nagusi du dituzten berehalako premiei erantzutea.

Modalitate horrek, horrenbestez, GLOa izateko baldintzak betetzen ditu, hain zuzen ere GLBK zehaztutakoak.

2) Gauza bera egiten ari al dira gainerako autonomia erkidegoetan? Zein erkidegotan? Estatuan? Europako beste herrialde batzuetan? Zein herrialdetan?


Urtarrilaren 17ko Lehendakarien Konferentziak emandako aginduari jarraituz eta zenbait autonomia erkidegok (horien artean, Nafarroa) eskatuta, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak urtarrilaren 23an bilera baterako deia egin zuten autonomia erkidegoei eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioari, Europan errefuxiatuen egoerari erantzun koordinatua emateko plan bat garatzeko.

Bilera horren ondoren, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziako Ekintza Humanitarioarako Bulegoak, autonomia erkidegoen –horien artean Nafarroa dagoela– eta Espainiako Udal eta

Probintzien Federazioaren lankidetzarekin, Errefuxiatuen eta Migratzaileen krisiari buruzko Europarako estrategia bateratu bat diseinatu du. Epe laburrean, aurreikusten da Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren bitartez, 2,5 milioi euro bideratzea krisi horri aurre egiteko. Hasiera batez, zenbateko horren erdia Europan betearaziko litzateke eta beste erdia, berriz, jatorrizko herrialdeetan. Halaber, proposatzen da autonomia erkidegoek eta toki entitateek, batera eta guztien artean, beste bi milioi euro bideratzea krisi erregional horretara.

Horrenbestez, estrategia horretako jarduketa oro GLO gisa egotziko da. Aipatutako bileran Andaluziak eta Nafarroak baizik ez zuten aipatu une horretarako ekarpen ekonomiko bat egiteko erabakia hartua zutela. Gainerakoa urtean zehar zehazten joanen litzateke.

Errefuxiatuak herrialde dohaintza-emaileetan artatzeko bideratutako Garapenerako Laguntza Ofizialaren datu berrienak 2015ekoak dira. Honako irudi honetan erakusten ditugu:



3. Nafarroako Gobernuak koiunturalki hartu du neurri hori, ala hurrengo aurrekontuetan ere gauza bera egingen al du?

Errefuxiatuekiko jarduketa, GLBak seinalatutako irizpideen arabera, gauzatzen jarraituko da, baldin eta horren beharra badago. Nafarroako Gobernuko Garapenerako Lankidetzaren gaurko partidei egoztearena behin-behineko eta koiunturazko irizpide bat da. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra

dago GLBaren irizpideak nahitaez betetzekoak direla.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17a

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Mendekotasunaren Behatokiaren XVIII. Irizpenean aipatzen diren denbora errealeko informatizazio-sistemen eta jarraipen-eredu sistematizatuaren ezarpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendekotasunaren Behatokiaren XVIII. Irizpenean aipatzen diren denbora errealeko informatizazio-sistemen eta jarraipen-eredu sistematizatuaren ezarpenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-17/PES-00073) Mendekotasunaren Behatokiaren XVII. Irizpenean aipatzen diren denbora errealeko informatizazio-sistemen eta jarraipen-eredu sistematizatuaren ezarpenari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Aipatutako parlamentariak bere galderan azaltzen du ezen Mendekotasunaren Behatokiaren XVII. Irizpenean esaten dela ezarpen-fasean duedela denbora errealeko informazio-sistematik eta jarraipen-eredu sistematizatu bat. Hori dela eta, eskatzen du azal dadin zer ekintza zehatz egin diren, bai eta zeintzuk dauden eginkizun, eta sistema horiek eta eredu hori zehazki zeintzuk diren ere bai.

Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Artatzeko 39/2006 Legearen ezarpena eta garapena baloratzeko Mendekotasunaren Behatokiak egindako eskalan, 11. zenbakiko itemean "Denbora errealeko informazio-sistematik eta jarraipen-eredu sistematizatu" aipatzen dira.

Puntuazio sistemak puntu bat ematen die lurralde osoan informazio-sistema bat definitu eta ezarri duten erkidegoei, eta aukera ematen dio erabiltzaileari berari espedientearen jarraipena egiteko, eskaeratik hasi eta zerbitzua edo/eta prestazioa hasten den artekoa. 0,5 puntu ematen du informazio sistema era mugatuan definitu eta ezarri denean, eta udalaren gizarte zerbitzuentzako informazioa bermatzen du. Eta 0 puntu ematen ditu sistema definitu ez denean.

Gaur egun, Nafarroako Mendekotasunaren Arretarako Informazio Sistema sartuta dago Gizarte Prestazioen eta Zerbitzuen Zerbitzu Integratuan, eta horrek aukera ematen die oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalen denbora errealean espedientearen garapenaren jarraipena egiteko, erabiltzaileak mendekotasunaren baloraziorako eskaera aurkezten duenetik prestazioak ematen diren arte. Oinarrizko gizarte zerbitzuek edo auzoko unitateek une oro jakin dezakete zein egoera administratibotan dagoen espedientea (mendekotasunaren balorazio egiteko hitzordua eman den, baloratu edo ebatzi den, dokumentazio gehiago eskatu den, balorazio ekonomikoa egin den).

Web-ingurunean dagoen informazio sistema bat da, eta hartarako sarbidea oinarrizko gizarte

zerbitzuetako profesionalei ematen zaie, Mankomunitateak hala eskatuta, eta Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du.

Hartara, atal honetako balorazioan, 0,5 puntu lortzen dugu.

Gainera, oinarrizko gizarte zerbitzuek Banaka-koaren Arreta Programaren proposamena bidal dezakete, erabiltzailearentzat hautatu diren prestazioekin, eta horiekin batera txosten soziala eta eskatutako dokumentazioa, euskarri digitalean, halako moduz non departamentuan automatikoki jasoko baita. Neurri horrek nabarmen arindu ditu dokumentazioa aurkezteko denborak. TRAMITA tresnaren bitartez egiten da. Tresna hori pilotu moduan 2016ko lehen seihilekoan jarri zen martxan sei oinarrizko gizarte zerbitzutan, eta pixkanaka Nafarroako gainerako gizarte zerbitzuetara hedatzen joan da. Departamentuak ahalegin nabarmena egin du profesionalei tresna horren erabileran prestakuntza emateko (guztira zortzi ikastaro eman zaizkie 32 gizarte zerbitzu desberdinetako 130 pertsonari), eta espero dugu haren erabilera, epe laburrean, funtzionaltasun osora

iristea eta, horrenbestez, espediente guztiak modu telematikoa iristea, eta ez paper-euskarrian. Beste edozein tresna informatiko bezala, beharrezkoa da profesionalek hura denbora batez erabil dezaten, baina, zalantzarik gabe, aurrerapen nabarmen bat da kudeaketari begira.

Falta izanen litzateke egoitza elektronikoa bat sortzea, herritarrek zuzeneko sarbidea izan dezaten, eta hartan mendekotasunaren balorazioa eskatzen duten pertsonak beren balorazio-espedientearen, banakako arreta programaren eta prestazioen egoera kontsultatu ahal izatea, oinarrizko gizarte zerbitzuetara edo auzo-unitateetara joan behar izan gabe. Tresna hori legegintzaldi honetan zehar ezarriko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Mina Muga proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Rubén Velasco Fraile jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mina Muga proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna. "Kontuan hartuz:

1.- SABIA Proiektuak –Mina Muga proiektuak– emandako informazioa, 20150147 espediente zenbakiarekin.

2.- Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen artikulua.

3.- Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena, eginkizunak esleitzeko, Aragoiko "Muga" (3.500-10 zenbakia) eta Nafarroako "Goyo" (350780 zenbakia) ustiapen-emakiden izapidetze administratiborako.

Honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1.- Mina Muga proiektuaren ingurumen ebaluazioaren izapidetzearen egoerari buruz MAPAMAK emandako informazioa ikusita, enpresa sustatzaileari proiektuaren testu bategin berri bat taxutu dezan eskatu al zaio?

2.- Egingen al da proiektuaren jendaurreko fase berri bat?

3.- Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat hasiko al luke esparru publikotik?

4.- Nafarroako Gobernuak ba al daki ingurumen-organoak organo substantiboari zergatik eskatu dion ingurumen-eraginari buruzko azterlanerako dokumentazio osagarria? Eskatutako informazio horren izaera bat al dator proiektuari egindako alegazioekin? Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio-prozeduraren epearen etetea?

5.- Kontuan hartuta enpresaren web-orrian emandako informazioan izandako gorabeherak, Nafarroako Gobernuak zer proiektuari buruz egin zituen bere txostenak? Proiektua aldatu baldin bada, Foru Administrazioak ingurumen-txosten berririk egin beharko luke?

6.- Ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa egiteko gutxi gorabeherako eperik ba al dago? (9-17/PES-00074). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

1.- Mina Muga proiektuaren ingurumen ebaluazioaren izapidetzearen egoerari buruz MAPAMAK emandako informazioa ikusita, enpresa sustatzaileari proiektuaren testu bategin berri bat taxutu dezan eskatu al zaio?

Erantzuna:

Ingurumen-eraginaren ebaluaziorako espedientearen izapidetzea Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioan (MAPAMA) egiten ari da. Erakunde hori da, izapidetzearen arduraduna den aldetik, sustatzaileari eskatzen diona egokitzat jotzen duen dokumentazio osagarria aurkezteko.

Galderan aipatzen den testu bategina MAPAMAK eskatu dio sustatzaileari errekerimendu zabalago baten barruan; errekerimendu horrek, izan ere, kontsulta egin zaien hainbat erakundek eskatutakoa jasotzen du. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak sustatzaileari igorritako 2016ko abenduaren 12ko errekerimenduaren testu osoaren kopia erantsi dugu, bai eta txosten horiek igortzeko azken idazkiaren, 2017ko urtarrilaren 24koaren, kopia ere.

Galdera:

2. Eginen al da proiektuaren jendaurreko fase berri bat?

Erantzuna:

Ingurumen-eraginaren ebaluazioaren espedientearen izapidetzea jarraitzeko moduari buruzko erabakiak Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak hartu behar ditu, behin eskatutako dokumentazio gutzia jasota.

Galdera:

3.- Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat hasiko al luke esparru publikotik?

Erantzuna:

Jada 2015eko abenduan, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Departamentuak Geoalcali enpresari eskatu zion herritarrek behin betiko proiektuan parte hartzeko plan bat egin zezan, eragile sozial guztien eta herritar interesdun guztien eskura egonen zena, eta gutxienez ere honako hauek jasoko zituen: informazio-fase bat, eztabaida-saioak edukiko dituen diagnosi-fase bat, proposamenak jasotzea eta itzulketa-fase bat.

Geroztik egin ziren bileretan, gomendio batzuk helarazi zitzaizkion plan hori egiteko, Partaidetza eta Jasangarritasunaren Atalak prestatutako "Partaidetza prozesuak ezartzeko oinarrien proposamena" izeneko dokumentuaren bitartez eta desagertutako CRANAK argitaratu zuen "Herritarren Partaidetzarako Gida Praktikoa" izenekoaren bitartez.

Gure ustez hori da departamentu honek egin dezakeen akonpainamendua, eta, horrenbestez, proiektua garatzeko hurrengo faseetan gomendio berei eutsiko die.

Galdera:

4.- Nafarroako Gobernuak ba al daki ingurumen-organoak organo substantiboari zergatik eskatu dion ingurumen-eraginari buruzko azterlanerako dokumentazio osagarria?

Eskatutako informazio horren izaera bat al dator proiektuari egindako alegazioekin?

Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio-prozeduraren epearen etetea?

Erantzuna:

Departamentu honek jakin du MAPAMAK dokumentazio osagarriaren errekerimendu bat egin diola sustatzaileari 2016ko abenduaren 12an. Errekerimendu horri buruz informatu egin behar zaio organo substantiboari, Ingurumen ebaluaziorari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, baina hartzailea sustatzailea da eta ez organo substantiboa.

Errekerimenduaren testua 1. puntuaren erantzunean gehitu da, eta hartan zehaztuta ageri dira eskatutako puntuetarako dauden justifikazioak, kontsultatutako hainbat erakunderen informaziotik abiatuta edo MAPAMAREN beraren irizpideen arabera. Errekerimenduaren arrazoa da kontsulta

egin zaien erakundeen txostenetan adierazitako alderdiei erantzuna ematea eta ingurumen-organok beharrezkotzat jotzen duen gaietan dokumentazioa osatzea, ingurumen-eraginari buruzko deklarazioan proiektuari buruz ageri den iritzia emateko behar adina informazio eduki baino lehen.

Eskatutako informazioak proiektuaren era askotako alderdiei egiten die erreferentzia, eta horiek partzialki bat etor daitezke aurkeztutako alegazio batzuekin. Ingurumen organoak bere errekerimendua egiten du jendaurreko informazioaren izapidetza emaitza eta eskatutako txosten sektorialak jaso ondoren.

MAPAMA da, ingurumenaren arloko organo gisa, errekerimendua egin direnean jasotako dokumentazio guztiaren garrantzia baloratzen duena edo ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa egiten duena.

Ingurumen-eraginaren ebaluazio-prozeduraren epea etetea Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 40.3 artikulua aplikatzearen ondorioa da, zeren eta sustatzailea ingurumen-organoren errekerimenduari erantzuna emateko dokumentazioa prestatzen ari baita.

“Baldin eta, espedienteari buruzko analisi teknikoan zehar, ingurumen organoak ondorioztatzen badu ingurumen-eraginaren azterlanari buruzko informazio gehiago behar dela edo sustatzaileak ez dituela kontuan hartu jendaurreko izapidetza zehar jasotako alegazioak, errekerimendua egiten dio, horren berri organo substantiboa emanda, ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa egiteko ezinbestekoa den informazioa osa dezan. Eskaera horrek ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa egiteko epea eteten du.”

Galdera:

5. Kontuan hartuta enpresaren web-orrian emandako informazioan izandako gorabeherak, Nafarroako Gobernuak zer proiektuari buruz egin zituen bere txostenak?

Proiektua aldatu baldin bada, Foru Administrazioak ingurumen-txosten berririk egin beharko luke?

Erantzuna:

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioak egindako dokumentazio-eskarian, PEI00175 erreferentzia duenean, DVD bat erantsi zen, departamentu honek jasotako dokumentazio tekniko guztiarekin, eta huraxe izan zen txostenen oinarria. Hasierako dokumentazio teknikoa MAPAMAK igorri zuen 2015eko uztailaren 1ean, eta dokumentazio osagarria, berriz, 2016ko apirilaren 13an.

Ingurumen-eraginaren ebaluazioaren espedientearen izapidetza jarraitzeko moduari buruzko erabakiak Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak hartu behar ditu, behin eskatutako dokumentazio guztia jasota.

Galdera:

6. Ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa egiteko gutxi gorabeherako eperik ba al dago?

Erantzuna:

Ezin da alderdi hori baloratu, zeren eta epeak gerarazita baitaude eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte. Baldin eta MAPAMAK dokumentazio hori jasotzen badu, epeak dokumentazio hori nahikotzat jotzearen arabera ezarriko dira, eta ingurumen-organok hari buruz egiten duen balorazioaren arabera, izapidetzearekin jarraitzeari begira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea indarrean dagoenetik Nafarroako administrazio publikoek erretiratutako sinboloei, sariei, izendapenei edo ohorezko tituluiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Lucía Pérez Ruano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea indarrean dagoenetik Nafarroako administrazio publikoek erretiratutako sinboloei, sariei, izendapenei edo ohorezko tituluiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00075). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Pérez andreak galdera egin du Nafarroan sinbologia frankistak duen presentziari buruz. Bada, horri erantzuteko, lehenengo gorarazi nahi diot 2016ko azaroaren 25ean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak sinboloen behin-behineko errolda onetsi zuela, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 10. artikulua dioen bezala. Sinboloen errolda hori onetsi egin zen, haiek erretiratzeari buruzko gomendioekin batera, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza nagusiak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta Nafarroako toki entitateekin lankidetzan jardunez egindako lanean oinarrituta, eta 2016ko azaroaren 30eko gobernu-erabakiaren bitartez berretsi zen.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BO N/Boletines/2015/54/Anu ncio-23/

Erabaki hori, sinboloen erroldarekin eta Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako gomendioekin batera, 2017ko urtarrilaren 13ko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean

argitaratu zen. Errolda horixe da, hain zuzen, zure galderan aipatzen dena.

Horri dagokionez, eta zure galderaren lehenengo atalari erantzunez, Gobernuak sinboloen errolda hori sortu du eta lanean ari da jada tokiko erakundeekin, herrietan dauden sinbolo frankistak guztiz erretira daitezen lortzeko. Gobernu honen lanaren ardatza izan da, 33/2013 Legeak aipatzen duen bezala, eremu publikoan dauden sinboloen errolda bat egitea, baina sinbolo horiek erretiratzeko hasten diren neurrian jakinen dugu horietatik zein erretiratu diren.

Bigarrenik, legea indarrean dagoenetik Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek erretiratu dituzten sari, izendapen eta ohorezko tituluiei dagokionez, Nafarroako Gobernuak azpimarratu beharra dauka 2015eko otsailaren 11ko Erabakia, 2015eko martxoaren 20ko 54. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, zeinaren bidez ezeztatzen dira Nafarroako Diputazioak hartutako erabaki hauek: 1939ko maiatzaren 12koa, 1939ko uztailaren 14koa, 1969ko maiatzaren 27koa eta 1974ko abenduaren 27koa. Horiek guztiak Nafarroako herritar kutun edo ohorezkoen izendapenei buruzkoak ziren. Ezeztatutako erabakiek honako sariak jasotzen zituzten:

1939ko maiatzaren 12ko Erabakia:

José Solchaga eta José Iruetagoiena seme kutun izendatu zituen.

Francisco García Escámez, Rafael García Valiño eta Ricardo Rada adopziozko seme izendatu zituen.

1939ko uztailaren 14ko Erabakia:

Seme kutuna: Tomás Domínguez Arévalo.

Adopziozko semea: Luis Orgaz y Yoldi, eta Federico García Sanchiz.

1969ko maiatzaren 27ko Erabakia:

Seme kutuna: Luis Arellano Dihinx.

1974ko abenduaren 27ko Erabakia:

Adopziozko semea eta Nafarroako domina: Francisco Franco.

Era berean, lehen aipatutako erroldan jasotako izenekin bat, jakin dugu toki entitate batzuetan hainbat pertsonari emandako sariak erretiratzeari ekin zaiela jada. Horixe da, esate baterako, Zangozako kasua; izan ere, 2016ko abenduan Fran-

cisco Francori herriko adopziozko semearen eta seme kutunaren izaera kendu zitzaion. Era berean, Agoizko Udalak, 2017ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, onetsi zuen Francisco Francori kentzea Nafarroako adopziozko seme eta seme kutunaren izaera, eta Enrique Martínez Arburuari, berriz, adopziozko semearen izaera kentzea.

Guzti-guztiak aipatzeko bokaziorik ez dugunez, balio dezatela bi kasu hauek sinboloen errolda onetsi zenetik hasia den prozesuaren adibide gisa;

izan ere, azken hilabete hauetan hasitako prozesu bat da, eta datuak, gaur den egunean, behin-behinekoak eta aldakorak dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, erradiologoek hezur eta muskuluen erradiologiei lotuta egin beharreko txostenen atzerapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erradiologoek hezur eta muskuluen erradiologiei lotuta egin beharreko txostenen atzerapenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/POR-00433 eta PES-00076). Honako hau jakin nahi du: "Zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak erradiologoek hezur eta muskuluen erradiologiei lotuta egin beharreko txostenen atzerapena konpontzeko?" Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak erradiologoek hezur eta muskuluen erradiologiei lotuta egin beharreko txostenen atzerapena konpontzeko?

Oinarrizko osasun laguntzatik eskatutako hezur eta muskuluen erradiologia soiliko txostenetan dagoen atzerapena ez da arazo berria; izan ere, 2013an Erradiologia Zerbitzua bateratu izanaren ondorioz sortu zen.

Aurten, Osasun Departamentuak, Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzarekin eta Erradiologia Zerbitzuekin batera lan eginez, plan integral bat diseinatu du arazoari ekin eta konponbide bat emateko.

Planteatutako neurriak (horietako batzuk abian dira jada) honako hauek dira:

Eskaria arrazionalizatzea

Jakina da eskatutako proba osagarrien % 20 eta % 30 bitarte ez direla beharrezkoak; hori dela eta, funtsezkoa da informazio garrantzitsua ematen ez duten azterketak identifikatu eta baztertzea. Horretarako, Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuak lantalde batzuk sortu ditu, azterketak eskatzeko eskaera arrazionalizatzeko eta hartarako protokoloak sortzeko; horien artean dago hezur eta muskuluen erradiologia soilak. Izan ere, ekainerako, honako dokumentua helarazi zitzaion profesionalei: "Proba osagarrien egokitasuna hezur eta muskuluen gaitasunetan".

Azterlan erradiologikoetako hitzorduak ematea

Hezur eta muskuluen erradiologiaren arloko eskariaren eta txostenen arteko desorekan eragin duen faktoreetako bat eskariaren araberako funtzionamendua izan da; hau da, azterketei buruzko programaziorik ez egotea. Horrek arazo ugari sortu ditu; besteak beste, eskabide gero eta gehiago egotea. Horrek, azkenean, kolapsoa ekarri dio Erradiologia Zerbitzuari.

Hemendik gutxira osasun etxeak gaixoei hitzordua ematen hasiko dira, halako moduz non ez

den gehiegizko pilaketarik egonen puntako orduetan, eta horrekin jarduera erradiologia zerbitzuen artean orekatuko da eta, azken batean, instalazioen erabilera arrazionalizatu eta optimizatuko da.

Txostena soilik sendagile eskatzaileak hura eskatzen duenean

Orain arte, erradiologoek Oinarrizko Osasun Laguntzatik eskatutako azterketa erradiologikoen % 100 informatzen zituzten; alabaina, familia medikuak, askotan, gai izaten dira azterketa horiek antzeko fidagarritasunarekin baloratu eta informatzeko. Jarduketa protokolo berri bati azken ukituak ematen ari gara. Haren bidez, oinarrizko osasun laguntzako sendagileak erradiologoari erradiografiak eskatu ahalko dizkiote TXOSTENAREKIN ZEIN TXOSTENIK GABE, halako moduz non erradiologoentzako lan-zama gutxituko den, eta, horrenbestez, txostenen atzerapena gutxituko den. Nolanahi ere, familia medikuak txostenik gabeko erradiografia bat eskatu badu eta gero hura interpretatzeko zalantzak baditu, aukera izanen du erradiologoari kontsulta egiteko edo telefonoz, edo profesionalen arteko kontsulta ez-presentzial baten bidez.

Osasun etxeetan pantailak eta teknologia berria jartzea

Familia medikuek, azterketa erradiologikoak interpretatu ahal izateko, irudiak ikusteko sistema egokiak behar dituzte. Oinarrizko osasun laguntzako mediku guztien monitoreetan Citrix terminalaren bidezko sarbide berri bat instalatuko da irudiak informazio-galerarik gabe ikusi ahal izateko; horrek hobekuntza nabarmena ekarriko du irudien kalitatean. Gainera, osasun etxe bakoitzean moni-

tore berezi bat ezarriko da, azterlan erradiologikoak bereizmen handiagoz ikusi ahal izateko.

Familiako medikuntzako egoiliarrei eta espezialistei prestakuntza ematea

Oinarrizko Osasun Laguntzako Gerentziak, Erradiologia Zerbitzuaren parte-hartzearekin, prestakuntza-programa bat egingen du Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku guztientzat, erradiologia soileko irudien interpretaziorako dauzkaten ezagutzak eta gaitasunak hobetze aldera.

Halaber, aztertuko da aukerarik ba ote dagoen Familia eta Komunitateko Medikuntzako egoiliarrek Erradiologia Zerbitzuan errotazioak egin ditzaten.

Erradiologia Zerbitzuaren plantilla berrantolatzea

Langabezian dagoen erradiologorik ez dagoenez, ezin da Erradiologia Zerbitzuaren plantilla osatu; horrek eragina du zerbitzu horren errendimenduan eta jardueran. Hala eta guztiz ere, zerbitzua berrantolatzen ari da, eta Hezur eta Muskuluen Erradiologiaren Atala sendotuko da, Oinarrizko Osasun Laguntzatik eskatutako azterketei erantzun egokia eman ahal diezaien.

Horri dagokionez, sei hilabetez atzeratu zen Pedro Atienza jaunaren erretiroa, erradiologoaren defizit hori arintzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, txertaketa-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, txertaketa-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du "haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruz" (9-17-PES-00077). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Kukutxeztularen aurkako osagai azelularra duten txertoen (dTpa) hornikuntza-arazoak Espainia osoan izan du eragina 2015etik, eta horren ondorioz dTpa-ren dosia jartzean gertatu den atzerapenak nazio mailan eragin du, "Osasun Sistema Nazionalako txertaketarako egutegi komunaren aldi baterako egokitzea" izeneko dokumentuan ikus daitekeen bezala. Hona hemen esteka:

http://www.msssi.gob.es/profesionales/salud-Publica/prevPromocion/vacunaciones/docs/Adaptacion_temporal_Calendario_Vacunacion.pdf

Zama gutxituko differia-tetanos-pertusis azelularren aurkako txerto horren hornikuntza-falta dela eta, 2015eko abuztuaren 13an Osasun Departamentuak osasun arloko profesionali aditza eman behar izan zien Nafarroako haurren-

tzako txertoen egutegian jasota dagoen txerto horren dosia hurrek 6 urte izan arte atzeratuko zela, behar adina dosi ez zegoen bitartean.

Data horretatik aurrera zama gutxituko dTpa azelularreko txertotik (Boostrix) eskura dauden dosi guztiak soilik erabili dira haurdunaldiko 28. astetik 32. astera dauden emakumeentzat, kukutxeztuleko kasu larrienak saihesteko; izan ere, kasu larrienak 6 hilabete baino gutxiagoko haurrenak izaten dira. Neurri hori gainerako autonomia erkidegoetan ere ezarri zen, eta Osasuneko Lurralde arteko Kontseiluko osasun publikoko zuzendaritzen bileran erabaki zen.

2017ko apirilaren 1etik aurrera, berriz, dTpa txertoaren hornikuntza normalizatu da, eta Osasun Departamentuak aurreikusitakoaren arabera, dTparen dosi bat txertatuko zaie 2017an zehar dosi hori jarri gabe duten haur guztiei:

- 2009an jaio eta 2015ean txertorik jarri ez zitzaizen 4.641 haur.

- 2010ean jaio eta 2016an txertoa jarri behar zitzaizen 6.917 haur.

Horiei guztiei ikastetxeetan jarriko zaie txertoa 2017ko ekaina amaitu baino lehen.

Gainera, 2011n jaiotako haurrei ere 2017an jarriko zaie txertoa, 6 urte betetzean; eta txertoa jartzeko berariazko hitzordua emanen zaie 2011n jaio eta jada 6 urte beteak dituzten haur guztiei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, inportazioak eta erkidego barreneko nahiz estatuarteko erosketak egin ordez hornidura endogenoa baliatzeko ekintza planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, inportazioak eta erkidego barreneko nahiz estatuarteko erosketak egin ordez hornidura endogenoa baliatzeko ekintza planari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko 9-17/PES-00078 galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak ekintza planik egin al duen hornidura endogenoa baliatzeko, inportazioen, erkidego barreneko erosketen eta estatuarteko erosketen ordez. Hona hemen Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Gaur den egunean, Garapen Ekonomikorako Departamentuak oraindik ere ez du berariazko planik, ekimenean planteatzen denaren antzekorik; alabaina, xede horretara bideratutako neurriak eta jarduketak bultzatzen eta betetzen ari da. Besteak beste:

– Lan saioak, zeinetan Nafarroako enpresa trakzio-eragile batek topo egiten baitu Nafarroako enpresa berritzaileekin, beharizan eta gaitasunak bertatik bertara ezagutzeko eta lankidetzara-aukerak baloratze.

– Nafarroako klusterrak bultzatzen ari gara, gure erkidegoko enpresen eta beste eragile batzuen arteko erakundeak baitira, jarduera ekonomikoaren arlo batean interesak partekatzen dituztenak eta beren lehiakortasuna hobetze aldera elkarrekin lan egiten dutenak. Bultzatze horrek aukera ematen du Nafarroan jarduera ekonomikoaren arlo horretan dauden ahalmen eta gaitasun guztiei buruzko ezagutza hobetzeko.

– Industria-sektore estrategikoen (automozioa eta mekatronika, nekazaritza-elikagaien industria, energia, osasuna) eta zeharkako trebetasunen arloen (ingeniaritza eta diseinua, ICTak, logistika) balio-katea osatzen duten Nafarroako enpresak indartzeko Industria Planean jasotako jarduerak, abiapuntuaren analisi kualitatiboa oinarri hartuta. Jarduketa horien artean, lehentasunezko sektore batzuetako lehiakortasun estrategikoko ekimenak, kontsulta-enpresa espezialitateen laguntzarekin eta klusterren lankidetzarekin –esate baterako automozioarena–, ibilgailu elektrikoa bezalako etorkizuneko erronkei begira.

Ildo horretan, analisi kualitatiboaz eta Industria Planean jasotako jarduketez gainera, Garapen Ekonomikorako Departamentuak aurreikusita dauka urtea amaitu baino lehen gure erkidegoaz kanpo, Estatuaren barruan zein Estatutik kanpo, eskuratutako produktu eta zerbitzuei buruzko analisi xehakaturik edukitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, lan-arriskuen prebentzioaren arloko neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lan-arriskuen prebentzioaren arloko neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko 9-17/PES-00079 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Hona hemen Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurriak:

1. NOPLOIren estatutuak aldatu

– Zerbitzuko burutzak bitik batera gutxitu dira; horrenbestez, atalen arteko koordinazioa hobetu eta efizientzia handitu da.

– Psikosoziologia prebentzioaren arloko gainerako espezialitateekin parekatu da, hura atal teknikoan sartuz.

– Prestakuntza, Informazio eta Ikerketa Unitatea sortu da, zerbitzuko burutzaren mende, haren hiru atalei arreta emateko.

– Medikuntza Prebentiboaren eta Osasun Publikoaren arloan, barrutiko fakultatibo espezialista bat jarri da, arestian aipatutako unitatean hain zuzen, Ekintza Planetik heldu diren azterlan eta erregistroak egiten laguntzeko.

– Idazkaritza Teknikoan laneko arriskuen prebentziorako unitate berri bat sortu da.

– Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseiluaren osaketa aldatu da, hartan langile autonomoen ordezkariak sartuz.

2. Lehentasunezko jardutako enpresak

– Jomuga-programa deitutakorako enpresak hautatu dira, eta zerrenda Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzara igorri da, bisita ditzan.

– Osasuneko eta Laneko zuzendari nagusiek sinatutako gutuna enpresa horiei igorri zaie.

Nafarroan istripu gehien zituzten 400 enpresetan % 20 jaitsi da istripu-kopurua 2015 eta 2016 urteetan.

3. Laneko osasunaren arloko ekintza plana

– Laneko Osasunaren III. Planeko 2017-2020 Ekintza Plana partaidetzaren bidez landu da, eta Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseiluak hura onetsi da.

3.1 Istripuen prebentziorako programa

– Ikertutako laneko istripuen 50 fitxa teknikoren bilduma aztertu, argitaratu eta zabaldu da.

– Jarduerako enpresariei basogintza programa aurkeztu zaie (50 pertsona bertaratu ziren).

– Basozaintzako langile eta mendietako agente gutzietan prestakuntza eman zaie (136 bertaratu ziren), egurra ateratzearen arloko arriskuak identifikatzeko eta jardutako protokolo bat izateko. Nafarroa osoan, modu deszentralizatuan, bost prestakuntza saio egin dira.

– Alertak piztu dira Nafarroan lehenengo aldiz gertatutako heriotza-istripu larriak, edo prebentzio-interesa dutenak, gertatu ondoren.

3.2 Garraio programa

– Gaixotasun infekzio-kutsakorra duena garraiatzeari buruzko eskuorria eta kartela egin dira, ONOZen Prebentzio Zerbitzuekin lan eginez, osasun-garraioan lan egiten dutenentzat.

3.3 Arrisku psikosozialak artatzea

– Arrisku psikosozialetatik heldutako kalte-ageraldiak izan dituzten enpresei kontrol-bisitak egin zaizkie.

– Gatazka-egoeran dauden enpresetan bitartekaritza-prozesuetan esku hartzeko aukera gaitu da.

– NOPLOIko teknikariek parte hartzeko aukera izan dute enpresetako ustezko laneko jazarpeneko eta sexu-jazarpeneko kasuetako ikerketa batzordeetan.

3.4 Kolektibo ahulak

– Lanerako adin aurreratuari eta laneko osasunari buruzko jardunaldia egin da (90 bertaratu ziren), Adin guztietarako lan-osasuna kanpaina europarraren barruan (2016ko azaroa).

– Amatasunerako lan-arriskuari buruzko kartela eta diptikoa egin dira, sexu- eta ugalketa-zentroetarako, osasun etxeetarako eta lantokietarako.

– Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren zuzendariordetzara txosten bat bidali da 2015ean eta 2016an NOPLOiko Lan Osasunaren Zerbitzuan artatu diren haurdun dauden bularra ematen ari diren emakumeen kasuistikari buruz, GSINK, mutuek eta LSHINK amatasunerako lan-arriskua egoteari buruzko ebaluaziorako inguruko estatu mailako irizpideen bateratzea bultzatzeko.

3.5 Prebentzio-sistema hobetzea

– Lehenengo harreman batzuk izan dira Toki Administrazioiko Departamentuarekin arlo horretarako prebentzio-zerbitzu mankomunatuak era daitezen sustatzeko.

3.6. Prestakuntza eta informazioa

– LPO espezialitateko (LHko 50 ikastetxe) irakasleentzako lan-osasunaren arloko prestakuntza eta informazioa emateko lana hasi da, Hezkuntza Departamentuarekin batera.

3.7 Beste batzuk: Hemendik gutxira amaituko da

- Nafarroako prebentzio-ordezkariek prestatzeko planaren

- istripuen prebentziorako plan berezia (talka plana) landu da. Parlamentuko mozio batetik heldu da hori, bai eta aurrekontuak direla-eta Parlamentuak onetsi zuen zuzenketa batetik ere, eta ekintza planeko beste jarduketak batzuekin koordinatu beharrekoa da.

4. Enpresentzako eta entitate sozialentzako diru-laguntzen kudeaketa

- Urtean 100.000 euro eman dira (2016 eta 2017an) lan-osasuneko proiektuak egiteko.

- Lanerako ekipamenduak eta lantokiak hobetzeko proiektuei buruzko informazioa eta jarraipena (320.000 euro) (DPEET).

5. Erakundeen lankidetzak eta departamentuen arteko koordinazioa hobetzea

5.1 DPEETekin lankidetzan, lantokietako arriskua gutxitzeko eman daitezkeen diru-laguntzen aipatzeko moduko dibertsifikazioa lortu da.

5.2 Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren 2016ko eta 2017ko planak zabaldu dira, eta haietan sartu da

- ikuskatu beharreko enpresetan lehentasunez jarduteko jarduera ekonomiko berrietako

- intereseko arrisku psikosozialak direla eta, etsaitasuneko jokabideetatik heldutakoak, eta

- enpresek nahitaezkoa den laneko istripuaren parte ez jakinarazteko kasuak direla eta.

5.3 Aditu moduan parte hartu da Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionala deitutakoaren eta Segurtasun eta Higienearen Institutuaren mendekoak diren estatu mailako lantalde-ugaritan, bai eta Osasunaren Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoaren Batzordearen lan osasunerako lantaldean ere.

5.4 Enpresetan eta lantokietan segurtasunaren eta osasunaren arloko baldintza material edo teknikoak egiaztatu eta kontrolatu dira, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailetzak programatutako lanetarako teknikari gaitu gisa.

5.5 Lan osasuneko jarduketak sartu dira Nafarroako zahartze osasungarrirako planean.

5.6 Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin bi bilera izan ditugu, gai komun batzuk aurkeztu eta haietan lankidetzan jarduteko.

6. Mutuak

– Amatekin (laneko istripuen 20 mutuak biltzen dituen elkartea) bilera bat egiteko lehenengo kontaktuak apirilean izan genituen, entitate horiek Nafarroan garatu beharreko Gizarte Segurantzaren prebentzio-jarduketetarako urteko plan orokorren arloko lankidetzak ezartzeko.

– Aldi baterako ezintasun komuna kontrolatzeko jardunaldia, oinarrizko osasun laguntzako medikuntzat (70 bertaratu ziren).

– Gizarte Segurantzaren kolaboratzaileak diren mutuen osasun-jarduketei buruzko kexen erregistroa sortzea.

7. Prestakuntza, informazioa eta ikerketa (Jarduketa horietatik gehienak lan osasuneko planeko ekintzak egiteari dagozkio).

– Lan Osasunaren zerbitzuko teknikariei bilera gidatzeari eta plangintza operatiboaren arloko prestakuntza ematea.

– Nafarroako Gobernuoko prebentzioko ordezkariek prestakuntza. 32 pertsonentzako ikastaroa eta jardunaldia. 45 ordezkariek bertaratu ziren.

– 2016ko Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna- jardunaldia (100 pertsona bertaratu ziren). Aurreikusita dago 2017ko apirilaren 28an CCOO-ren ekitaldian parte hartzea.

– 2007-2012 urteetarako Lan Osasunaren arloko Estatuko Prestakuntza Planaren ebaluazioa eta 2012-2015 urteetako jarduketak koordinatzea. Autonomia erkidegoen eldun izatea Estatuko

Segurtasunaren eta Osasunaren Kontseiluko lan-taldean.

– LPO espezialitateko (LHko 50 ikastetxe) irakasleentzako lan-osasunaren arloko prestakun-tza eta informazioa emateko lana hastea, Hezkun-tza Departamentuarekin batera.

– Lan Osasunaren Aldizkari bihilabetekariaren zabalpena handitzea (50 hartzailetik 200 har-tzailera) teknikari eta eragile sozialen artean.

– Langileen osasuna, laneko ertsaitasunezko jokabideak, kalte psikosozialak eta abarrekoen Zaintza Epidemiologikoko Sistemaren arloko zen-bait biltzarretan parte hartzea gonbidatu gisa.

– Nafarroako Lan Osasunaren III. Inkestaren emaitza argitaratzea (2016).

– Nafarroako lan istripuei buruzko txosten hiru-hilabetekariak eta urtekariak argitaratzea.

– Web orriaren aurkezpena eta edukiak hobetu eta gaurkotzea, etengabeko prozesu baten bitar-tez.

8. Bestelako jarduketak

– Nafarroako Gobernuko Administrazio Erroa-ren prebentzio sistemari buruzko auditoria abian jartzea.

– Amiantoak.

– Nafarroako Ospitaleguneko Neumologia Zerbitzuarekin eta Ezgaitasunen Baloraziorako Lantaldearekin talde bat osatu da lanean amianto-aren eraginpean egoteko balizko kasuekin lotutako patologiak aztertzeke.

– Amiantoagatiko konpentsazio funtsari buruz-ko txostena egitea, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi bezala.

– Amiantoaren eraginpean egotearen arriskua dakarten laneko planak berrikusi eta haien egoki-tasunari buruzko txosten teknikoak egitea, laneko agintariek eskatuta. 2015ean eta 2016an amianto-aren eraginpean egotearen arriskuari buruzko 60 plan egin dira.

– Nafarroako Ospitaleguneko Neumologia Zerbitzuko arduradunekin bilera egitea, amianto-aren eraginpean dauden langileei lanean aritu ondoren egindako azterketen jarraipena egiteko.

9. Eskatuta egin diren jarduketak eta bestelako programak

– Istripu larri, heriotza-istripu eta prebentzio dela-eta interesa duten beste istripu batzuen arra-zoiak ikertzea (urtean 70 inguru).

– Erakunde, enpresa, ordezkari eta langileei aholku eta laguntza teknikoak ematea.

– Nafarroako langileen osasunari buruzko Zaintza Epidemiologikoko Sistemari eustea. Osa-suneko oinarrizko osasun laguntzak urtean jakina-razitako 1.300 kasu inguruetatik norberaren boron-datez aitortzeak diren laneko patologien 600 kasu nominalei arreta egin eta haiek aztertzea. Lanarekin lotutako patologien kasuak aztertzea: urtean 130 inguru dira. Ikuskatzailetzak Medikoak eta Oinarrizko Osasun Laguntzak jakinarazi dituz-ten baina gero jakitera eman ez diren laneko istri-puen ondoriozko lesio kasuei arreta egitea (urtean 70 inguru). Oharra: Datu horiek 2015ari buruzkoak dira; 2016koak, berriz, prestatzen ari dira. Adieraz-leen goranzko joera.

– Laneko Medikuntzaren Irakaskuntza Unitate-aren kudeaketa eta familiako eta komunitateko medikuntzako mediku espezialisten eta medikun-tza prebentiboko eta osasun publikoko mediku espezialisten MIR Sistemaren prestakuntzan laguntzea.

10. Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseilua

– Kontseiluaren saioetan parte hartzea eta haren idazkaritzaz arduratzea. Urtean 3 bilera egi-ten dira.

Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak hartutako neurriei dagokienez, legegintzaldi honetan, Lan Harrema-nen eta Arriskuen Prebentzioaren Atalari esleituta-ko eginkizunen bitartez, zuzendaritza honek hona-koak egiten jarraitu du:

a) Lantokiak irekitzeari buruzko komunikazioak eta eraikuntza-obrei buruzko segurtasuneko eta osasuneko planak jaso, eta amiantoarekin zeriku-sia duten lanetarako planak baimentzea.

b) Eraikuntzaren sektoreko enpresa egiazta-tuen eta amiantoaren arriskua duten enpresen erregistroan izena emateko eskariak baimentzea.

c) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko zehapen-prozedurak izapidetzea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak eskatuta.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osa-sunaren Institutuarekin etengabeko lankidetzan jardunez, arlo honetako politika publikoen koordi-naziorako aldizkako bilerak egiten dira.

Gainera, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Lurraldeko Koordinazio Ba-tzordean parte hartzen jarraitzen dugu. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Nafarroa-ko urteko plangintza onesten duen administra-zioen arteko organoa da.

Laneko arriskuen prebentzioaren arloa sustatzeko politikei dagokienez, 2016an lehentasunezko laneko arriskuei buruzko proiektuak egiteko laguntzen deialdia onetsi zen, eta irabazi asmorik gabeko lau erakunderi 75.000 euro eman zitzaizkien guztira, 25 langile bitarteko enpresetan proiektu bana egin zezaten. Gaur egun, 2017rako neurriak diseinatzen ari gara, NOPLOIrekin batera.

Halaber, 235.000 euro eman zitzaizkien enpresa nafarrei lantokiak egokitzeko inbertsioetan laguntzeko eta lanerako ekipamenduak ordeztu edo egokitzeko, lan arriskuen prebentziorako araudi indarduna betetze aldera. 2017an, deialdiak 250.000 euro dauzka, eta Nafarroako enpresen prebentzio arloko inbertsioak babestera bideratuko da. Eskabideen balorazio teknikoa NOPLOIk egingen du.

Bestela ere, Zuzendaritza Nagusiak 2017-2020 aldirako Nafarroako Lan Autonomoaren Planaren idazketa koordinatu du. Dokumentu horretan, Nafarroako autonomoen kolektiboari laguntzeko jarduketak biltzen dira. Planaren ildo estrategikoe-

tako batek laneko arriskuen eta lan osasunaren prebentzioaren arloa du ardatz, eta hartan hiru ekintza eta bederatzi jarduketa zehatz daude, honako hauek xede hartuta: kolektiboa eta haren arriskuan identifikatzeko jarduerak; sentsibilizazio, prestakuntza eta zabalpen jarduketak; eta kolektiboko elkarteak sustatzea, arriskuen prebentziorako organo instituzionaletan (Nafarroako Lan Osasunaren Kontseilua) parte hartzearen bitartez. Plan honek, halaber, aurreikusten du autonomoen kolektiboa dela eta laneko istripuen behatoki iraunkorra sortzea, eta bertan haien elkarteak, administrazio zentralak eta mutuek parte hartzea. Behatoki horrek kolektiboko lan istripuen aldagai eta arrazoi guztiak aztertuko ditu eta hobekuntzak proposatuko ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Andosilla, Azagra eta San Adriango enpresetan izandako elektrizitate-hornikuntzaren ezari eta mozketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Andosilla, Azagra eta San Adriango enpresetan izandako elektrizitate-hornikuntzaren ezari eta mozketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto


Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko 9-17/PES-00080 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo galdera. Zein da Andosilla, Azagra eta San Adriango enpresetan izandako elektrizitate-hornikuntzarik ezaren eta hornikuntza horren mozketen arrazoia?


1. Eskualdeko azpiegiturak:

Nafarroako Goi Erriberari Quelgo Transformazio Azpiestaziotik 66 kV hornitzen zaizkio, ustiaketaren araubidean, "Renfe-Alcanadre" eta "Calahorra" goi-tentsioko lineetatik; linea horiek, aldi beran Lodosako, Carcarko eta San Adriango (Calahorran dago) banaketarako transformazio azpiestazioak elikatzen dituzte.

Hurrengo mapak 66 kVko lineak islatu diren sarearen plano kartografikoa jasotzen du.



Tentsio ertainari (13,2 kV) dagokionez, hurrengo eskema ortogonalean erakusten da udal bakoi-tzak BTA dela-eta daukan mendetasuna. Oro har, ordezko elikadura-bideak dauzkate. Sartaguda, Sesma eta Lerin dira elikadura erradiala duten bakarrak.



2. Hornikuntzaren kalitatea:

Banaketa-enpresei exigitzekoa zaien hornidura elektrikoaren kalitatea Energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkaturatze eta hornidurarako jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan ezarrita dago. Banakako eta eskualdeko hornikuntzaren kalitatea baloratzeko garaian, errege dekretu horrek soilik jasotzen ditu hornidura elektrikoaren 3 minututik gorako etendurak. Halaber, errege dekretu horrek hainbat muga ezartzen ditu, hornidura zein tokitan dagoen (hiri eskualdea, sasihiriko eskualdea, landa eskualde kontzentratua, landa eskualde barreiatua).

Gaur arte, Iberdrola Distribuciónek abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan ezarritakoa bete izan du. Eskualdean ahalmen arazorik ere ez dago.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak badaki hornidura elektriko egonkorra edukitzea (arauan ezarritako mugetatik goitikoa) funtsezkoa dela jarduera ekonomiko eta soziala sustatzeko eta hari eusteko.

3. Hornidura-eteteen arrazoiak:

Alde batera utzita une batean edo bestean iraupen luzeko matxurak gerta daitezkeela, perturbazio elektrikoak dira eskualde honetan eragin handiena duen arazoa.

Perturbazio elektrikoaren barruan sartzen dira sare elektrikoetan gertatzen diren perturbazio modu desberdinak; honako hauek, esate baterako: aldaketa azkarrak (flicker), tentsio-aldaketa, tentsio-hutsuneak, etendura laburrak (3 minututik beherakoak), harmonikoak, fase-desorekak eta gaintentsio iragankorrak. Bereziki, mikromozketa gisa ezagutu ohi direnak bi fenomeno desberdinei dagozkie: araudiak tentsio-hutsune edo etendura laburrak deitzen dituenak dira. Perturbazio horiek berezkoak dira sare elektrikoan, eta saihetsezinak dira askotan.

Perturbazio horien arrazoiak askotarikoak dira, eta beren jatorriaren arabera sailka daitezke:

– Kanpokoak: Abifaunaren eragina, fenomeno atmosferikoak (ekaitzak, tximistak, haizeak, elurteak, suteak, uholdeak, zuhaitz-erorketak eta abar), istripuak eta beste.

– Barnekoak: Banaketa-sareko ekipamenduen akatsak, ustekabeko maniobrak egitea matxurei konponbidea emateko edo eragiketa horietan gizakiek egindako akatsak.

– Banaketa-sarera konektatuta dauden hirugarrenek eragindakoak: Garraio-sarean (400 eta 220 kV) edo gure sarean konektatuta dauden instala-

zioetan sortutakoak: perturbazioa eragiten duten zamak, erreakzio erako kontsumo eta sorkuntzak, kontsumitzaileen edo sorgailuen instalazio partikularretako matxurak eta abar.

2 eta 3. galderak. Nafarroako Gobernuaren ustez, zein da soluziorik bideragarriena epea, Azagra eta San Adriango enpresek dituzten elektrizitate-hornikuntzako arazoak konpontzeko? Zein epetan?

1. Perturbazio elektrikoak direla-eta egindako hitzarmena

2016ko ekainaren 30ean, Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta Iberdrola Distribuciónek hitzarmen bat sinatu zuten perturbazio elektrikoak zirela eta.

Hitzarmen horrek ekintza-plan bat ezartzen du perturbazio elektrikoek enpresen produkzio-prozesuetan eragin ditzaketan ondorio negatiboak prebenitu eta arintzeko.

Ekintza planak honako neurri hauek jasotzen ditu:

– Iberdrola Distribuciónek beren instalazioetan jardutekoak: Euskarriak, armatuak eta isolatzaileak hobetzea, batetik; eta hegaztiak pausatzearen aurkako eta habiak egitearen aurkako elementuak jartzea.

– Informazio-jardunaldiak: Hitzaldi teknikoak egitea mantentze elektriko lanetan diharduten langile, enpresa instalatzaile, ingeniari-entrepresa, teknikari eta abarrentzat. Jardunaldi horiek Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin koordinatuta egiten dira.

– Enpresetara bisita egitea: Enpresei doako aholkua ematea. Iberdrola Distribuciónen Bezeroentzako Laguntza Teknikoko Zerbitzuak emanen du, eta horren barnean azterketa bat eta eskatzailearen instalazioa immunizatzeke proposamen bat jasoko ditu.

Administrazioaren ustez, hitzarmen hori enpresa banatzailearekin eta enpresaburuekin lan egiten jarraitzeko esparru egokia da.

2. Eskualderako konponbide zehatzak eta epeak

Administrazioak errekerimendua eginda, Iberdrola Distribuciónek zenbait inbertsio zehatz proposatu ditu eskualdean:

– 2017an aurreikusita dago sareko hamaika ebaketa-organo instalatzea, urrutitik kontrolatuak, Lodosako, Carcarko eta San Adriango BTAetako tentsio ertaineko lineetan.

– 2017-2018an, herri horietan kokatutako guxtienez ere bederatzi zentro automatizatu eta urru-

titik kontrolatzeari ekinen zaio, bai eta beste hamar transformazio-zentro gainbegiratu eta urrutitik seinalatzeari ere.

– 2017an, aurreikusita dago “Lodosa-Carcar” 13,2 kVko lineako 50 euskarriren armatua aldatzea, abifauna babesteko; hori lagungarri gertatuko da linea horretan sor daitezkeen etendura laburrak gutxitzeko.

– 2018an, aurreikusita dago “Lodosa-Carcar” 13,2 kVko linearen 9. euskarria “Lodosa-Sartaguda” 13,2 kVko linearen 7. euskarriarekin lotzeko tentsio ertaineko aire-linea bat egitea, eta linea orokorrean bi ebakigailu instalatzea; horrek bideratuko du zuzeneko sorospena egotea Sesmarako deribazioan, baldin eta linea orokorrean matxura bat badago.

– 2018-2019an, “Calahorra-Villar de Arnedo” 13 kVko linea eta “Lodosa-Sartaguda” 13,2 kVko linea lotuko dituen tentsio ertaineko linea-tarte berri bat egitea, zeinak bigarren elikadura bat emanen baitio Sartagudako herriari; era berean, beste euskarri bat izanen da Lodosako BTaren tentsio ertaineko sarerako, horrek horniduraren kalitatean dakarren hobekuntzarekin.

– Datozen ekitaldietan, aurreikusita dago “Quel-Rincón 2 / Quel-Alfaro” zirkuitu bikoitza egitea, 66 kVkoa, zeinak aukera emanen baitu hiru lineatan bereizteko egungo “Quel-Rincón” 66 kVko linea, San Adriango BTA elikatzeke linearen luzera gutxituz; hartan eragin lezaketen etendura laburren kopurua gutxituko du horrek.

Halaber, 2017an, aurreikusita dago “Quel-Pradejón / Quel-San Adrián” 66 kVko zirkuitu bikoitza eraikitzea; General Mills SAK eginen du. Instalazio horrek aukera emanen du baiezkoa emateko potentzia handitzeko enpresak egin duen eskariari (Iberdrola Distribuciónekin horretarako sinatutako hitzarmenean jasotakoari jarraituz), baina, gainera, bidea emanen du egungo “Quel-Calahorra” 66 kVko egungo linea hirutan banatzeko, Lodosako BTA elikatzeke linearen luzera gutxituz; hori lagungarri gertatuko da hartan eragina izan dezaketen etendura laburren kopurua gutxitzeko.

Proposamen horrekin ados dagoenez, Administrazioa haren jarraipenaz eta monitorizatzeaz arduratuko da.

Kontuan hartu beharra dago ezen isolatzaileak aldatzeko edo habia-egiteak saihesteko elementuak instalatzeko inbertsioak jarduketa errazak direla, izapidetzeari eta exekuzioari dagokienez. Norainoko handiagoa duten beste ekintza batzuek, berriz, exekuzio-denbora luzeagoak eskatzen dituzte; esate baterako, merkatuak banatzea linea berri zuzenagoen bitartez, kudeaketa hobetzea

lineetan urrutitik agindutako sareko ebaketa-organoen bitartez eta transformazio zentroak automatizatzea.

4. galdera. Gobernuak soluzio horretarako diru-ekarpenik eginen al du?

Eskualdeko egoera Iberdrola Distribuciónekin kontrastatuta, aipatutako inbertsioak proposatu ditu azken horrek. Proposamen horrekin ados dagoenez, Administrazioa haren jarraipenaz eta monitorizatzeaz arduratuko da, eta ukitutako entitateei informatuko die. Halaber, jarduketa horiek eskatzen dituzten izapide administratibo guztiak arinduko ditu.

Printzipioz, Nafarroako Gobernuak ez du inolako ekarpen ekonomikorik eginen. Enpresa banatzaileak (Iberdrola Distribución Eléctrica SAU) egin behar ditu inbertsioak, bera baita banaketa-sarea egin, harekin jardun eta hura mantentzeaz, eta, kasua bada, banaketa-sarea garatzeaz arduratu behar duena.

5 eta 6. galderak. Zer bilera egin du udal eta enpresa horiekin? Zer konpromisotara heldu da bilera horietan?

2017ko otsailaren 15ean Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak bilera bat egin zuen Andosillako eta San Adriango alkateekin, bai eta eskualdeko hiru enpresatako ordezkariekin ere: General Mills, Imberembal eta Industrias Grasas Marín.

Bilera horretan, bertaratutakoekin, eskualdeko beharrian zehatzak egiaztatu ziren. Administrazioak konpromisoa hartu zuen konponbide egoki bat aurkitzeko eskualdeko banaketa-sarearen hobetzeari begira. Iberdrola Distribuciónek proposatu eta Administrazioak balioetsi duen jarduketa planak bete egiten du eskualdeko ordezkariekin hartutako konpromisoa.

Bestalde, Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak autokontsumorako eta mikrosareetarako energia berriztagarriko iturriak instalatzeko kenkari fiskalei buruz informatu zuen (bai sozietateen gaineko zergan, bai pertsona fisikoen gaineko zergan). Horri dago-kionez, zuzendaritza nagusiak enpresak animatu zituen sistema horietan inbertitzera, horrek hornitzaileengandik independentzia-maila handiagoa eta lehiakortasun handiagoa emanen baitizkie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, sare publikoko ikastetxeetako hobekuntza plan bati begira Hezkuntza Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuak eta Ebaluazio Zerbitzuak egindako edo aurreikusitako ebaluazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sare publikoko ikastetxeetako hobekuntza plan bati begira Hezkuntza Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuak eta Ebaluazio Zerbitzuak egindako edo aurreikusitako ebaluazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00082). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

– Lehenengo galdera Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak 2016-17 ikasturterako aurreikusita dituen ebaluazioei buruzkoa da. Bada, horri buruz esan beharra daukagu gaur egun kanpoko ebaluazioak prestatu eta antolatzek lana jada ez dela Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren egitekoa, baizik eta Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuarena.

Hobekuntza planak berrikusteari dagokionez, jarduketa Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren urteko jarduketa-planean dago programatuta. Plan hori 2016ko azaroaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 24ko 447/2016 Ebazpenean jaso zen. Jarduketa hori ez da aurreko ikasturtean egin zenaz bestelakoa, eta 2016ko azarotik 2017ko ekainera egiteko programatu da.

– Zuzendaritza-taldeek, ikasturtearen amaieran, Ikastetxeko Txostena jasoko dute beren ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 4. mailan edo/eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailan ebaluatutako ikasleen emaitza orokorrekin. Emaitzen txosten horri buruzko analisisa ikastetxeen ikasturte amaierako oroitidazkien zati bat izanen da, eta hurrengo ikasturterako programazio orokorrean emaitza horiek hobetzeko neurriak jaso beharko dira.

Ikastetxeetan, hobekuntza-planak hainbat adierazletan oinarrituta garatzen dira; horietako bat kanpoko ebaluazioa da, eta aukera ematen du bai indarguneak, bai hobekuntza-arloak identifikatzeko. Behin hobekuntza-arloak identifikatuta, ikastetxeak gaitasunak hobetzeko plana ezarri ahalko du, eta hartan jaso lortutakoen, egutegiaren eta ekintzen adierazleak.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta irakaslez bestelako langileen aurka izandako eraso salatuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta irakaslez bestelako langileen aurka izandako eraso salatuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00083). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalean 89 eraso erregistratu dira ikasturte honetan zehar, 2017ko otsailaren 28ra arte.

Lanpostuei erreparatuta, irakasleei egindako erasoak 84 izan dira guztira, eta irakasle ez diren langileei egindakoak, berriz, 4.

Ikastetxeen eta hezkuntza-mailen arabera, berriz, irakasleei egindako eraso gehienak ikastetxe publikoetan eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan gertatu dira: jakinarazitako

52 eraso dira. Bigarren tokian, bigarren hezkuntzako institutueta eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutueta jakinarazitako erasoak daude: 20 dira guztira. Gero, lanbide heziketako ikastetxeetan eta lanbide lantegietan jakinarazitako erasoak datoz: 10 eraso dira guztira (horietatik bi lanbide lantegietan gertatu ziren). Halaber, Nafarroako Musika Kontserbatorio Profesionalean izandako eraso bat jakinarazi zen; hezkuntza bereziko ikastetxe batean jakinarazitako beste bat, eta, azkenik, helduen hezkuntzarako ikastetxe batean jakinarazitako bat.

Hezkuntza Departamentuko irakasle ez diren langileei egindako erasoak dagokienez, jakinarazitako 4 erasoak ikastetxe publiko berean izan ziren, eta hiru alditan zaintzaileak pairatu zituen eta beste behin atezainak.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalean guztira erregistratutako 89 erasoetatik, 7tan salaketa aurkeztu zen Foruzaingoan edo Udaltzaingoan.

Erasotzailearen tipologiari begiratuta, daukagun informazioarekin, esan dezakegu 79 eraso ikasleek egin zituztela; 9 eraso irakasleen senideek, eta eraso bat, azkenik, ikastetxetik kanpoko pertsona batek, ikasleekin inolako ahaidetasunik ez zuenak.

Iruñean, 2017ko martxoaren 22an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, fakultatibo espezialistei erretiroa nahitaez hartzeko adina bete arren jardunean jarraitu ahal izatea baimentzen dien Nafarroako Gobernuaren akordioan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua sartzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, fakultatibo espezialistei erretiroa nahitaez hartzeko adina bete arren jardunean jarraitu ahal izatea baimentzen dien Nafarroako Gobernuaren akordioan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua sartzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-16/PES-00084), zeinaren bidez jakin nahi baitu zergatik sartu den "fakultatibo espezialistei erretiroa nahitaez hartzeko adina bete arren jardunean jarraitu ahal izatea baimentzen dien Nafarroako Gobernuaren akordioan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua, horiek ordezkatzeko zailtasunak egon daitezkeelakoan". Hona Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak erantzun beharrekoa:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua, bere estatutuen arabera, erakunde tekniko eta laguntzako da, osasunaren sustapenean eta zaintzan eta osasun arazo kolektiboen prebentzioaren eta esku-hartzearen arloetan espezializatua.

Hori dela eta, haren eginkizunen artean dago agerraldi epidemiologikoen eta banakako osasunerako eta osasun kolektiborako balizko egoeren aurrean zaintza- eta kontrol- lanak egin eta esku-hartzea, bai eta txerto-politika eta -programak ere.

Institutuaren eginkizunen artean daude, halaber, gaixotasunen aurkako prebentzio-programak egitea eta berariazko prozesuen aurkako osasun borroka egitea.

Eginkizun horiek guztiak garatzeko osasun arloko profesionalak behar dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan bezalaxe.

Bestalde, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileei aplikatzeko zaie Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duen 11/1992 Foru Legea. Eta, halaber, aldi baterako kontratazioaren arlorako, araudi bera aplikatzeko zaio; hau da, maiatzaren 19ko 60/2015 Foru Agindua.

Hartara, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan, erretiroa hartzen duten langileak ordeztari dagokionez, gertatzen dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan dauden arazo berak.

Datozen bost urteetan (2017-2021) aurreikusitako 47 pertsonak hartuko dutela erretiroa Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan; horietatik bederatzik fakultatibo espezialistak dira:

Barrutiko fakultatibo espezialista/Erradiologia-ko alboko bat

4 barrutiko fakultatibo espezialista/Medikuntza Prebentiboko alboko bat

4 laneko medikuntzako mediku espezialista

Gaur egun, hiru espezialitateetako kontratazio zerrendetan arazoak daude kontratatze, profesionalak falta direlako. Horri buruz, esan beharra dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kontratazio zerrendetan eta Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan izena emanda dauden profesional ia guztiak berak direla.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun-laguntzako eta osasun-laguntza espezializatuko nutrizionista-espezialitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun-laguntzako eta osasun-laguntza espezializatuko nutrizionista-espezialitateari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00085), zeinean ondoren datozen galderrei erantzutea nahi baitu. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Zein da oinarrizko osasun-laguntzako eta osasun-laguntza espezializatuko nutrizionista-espezialitatearen egoera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan?

Une hauetan, lanpostu ofizial bat badago, ekainaren 29ko 43/2016 Foru Dekretuaren bitartez sortua, hutsi dagoena.

Joan den asteartean, martxoaren 21ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 633E/2017 Ebazpena argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, zeinaren bidez lanpostu huts hori betetzeko oposizio-lehiaketa onetsi baitzen.

Halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen arteko barne sustapeneko prozesu bat eginen da.

Nutrizionista-titulazioa daukaten zenbat pertsonak daukate berriazko lanpostua Osasunbidean?

Gaur egun, bakarra ere ez.

Zer eginkizun daukate gaur egun?

1. Nafarroako Ospitalegunearen eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Nafarroako bestelako zentroen arteko lotura egitea, gaixo kronikoen arloko aholkuari, prestakuntzari eta jarraipenari dagokienez.

2. Gaixo kroniko eta pluripatologikoen kasuan baheketa nutrizionaleko estrategian parte hartzea.

3. Kirurgia bariatrikoko gaixoen jarraipena egitea.

4. Gaixo ambulatorioekin, nutrizio enteraleko tratamendu kronikoaren jarraipena egitea. Kanpo kontsultetan edo oinarrizko osasun laguntzan egin beharreko geroko kontrolen plangintza egitea.

5. Nutrizioari buruzko hezkuntzan parte hartzea. Hezkuntzako materiala egitea (liburuxkak, ezagutzei buruzko testak, menuak, errezetak, aholku orokorrak eta abar).

6. Ikerketa proiektuetan parte hartzea.

Ba al dago unitate edo egitura administratiborik esparru horretan?

Aipatutako lanpostua Dietetika eta Proiektu Berrietarako Erizaintza Unitateari atxikita dago.

Osasun Departamentuak zer aurreikuspen darabil espezialitate horri dagokionez? Horren aitorpenik eta kontratazio berririk izanen al da? Zer eginkizun aurreikusten dira pertsona horientzat?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak titulazio hori duten profesionalak hartzen jarraituko du, Foru Komunitateko gainerako osasun arloetan aipatu berri ditugun eginkizunak gara ditzaten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, beren kondena atzerrian betetzen ari diren nafarrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Rubén Velasco Fraile jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, beren kondena atzerrian betetzen ari diren nafarrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00086). Egin dituen galderari erantzuteko, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Justiziako zuzendari nagusiaren 2017ko martxoaren 23ko ofizioa erantsi du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont Aristu

Podemos-Ahal Duguren parlamentu-galdera: 9-17/PES-00086

1.- Zenbat nafar ari dira zigor bat betetzen atzerrian?

Asko sentitzen dugu, baina Espetxe-erakundearen erregistroetarako sarbiderik ez dugu datu horiek jakiteko. Barne Ministerioako Estatuko Idazkaritzako Erakunde Harremanetarako Zuzendariordetzara jo dugu, bera baita erregistro horiek kudeatzen dituena, eta haien esanetan Diputatuen Kongresua edo Senatua dira informazio horri buruzko eskaria egin dezaketenak.

Hori ikusita, eta hutsune hori betetzeko, "+34 Nunca olvidados" Fundaziora jo dugu: atzerrian zigorra betetzen senideak dituzten familiei laguntzen diharduen erakunde bat da. Hor ere ezin izan dugu eskatutako datua lortu.

Fundazio horrek harremanak dauka zenbait herrialderekin, ez guztiekin, eta laguntza eskatzen dutenei sostengu juridiko eta soziala ematen die.

Uste dugu gaur egun Espetxe-erakundeak direla gaiari buruzko datu fidagarri eta zorrotzak

dauzkaten bakarrak, baina haienak erregistro publikoak ez direnez informazio hori emateko betebeharra parlamentu zentralak eskatzen duenean bazik ez dute.

2.- Laguntza juridikoa eta zigorra betetzeko baldintzak.

Nafarroako Gobernuak Justizia Zuzendaritza Nagusian ez dugu jaso gai horri buruzko kexa edo daturik. Gobernu Zentraleko Atzerriko Gaietako Ministerioak eta Kontseilu Nagusiko abokatuek, aipatutako GKEaz gainera, laguntza juridikoa ematen diete presoek, eta bisitak egiten dizkiete. Gainera, jarraipen-programa berezi batzuk badaude zenbait herrialdetan; Ekuadorren eta Perun, esate baterako.

Herritar nafarrei dagokienez, ezin digute esan zenbat dauden, zeren eta datu hori ez baitute berezita, eta zerbitzu horren gabeziei buruzko kexarik ez baita jaso.

3.- Atzerriko lurraldean lankidetzan jarduteko ekimenak badauden.

Ez da aurreikusita berriazko programa edo jarduerarik egitea.

Salhaketarekin jarri gara harremanetan. Presoek laguntzen dien elkarte bat da, Iruñeko Espetxean jarduten duena, eta ez dute inolako ekimenik atzerrian dauden preso nafarrei sostengua emateko.

4.- Bestelako ekimenak.

Nafarroako Gobernuak Justizia Zuzendaritza Nagusian aurreikusita daukagu Iruñeko espetxearekin lankidetzaren hitzarmen bat egitea presengan eragina duten komunikazio telematikoen arloan laguntzeko, Justizia Administrazioako Komunikazio Zerbitzuaren joan-etorriak saiheste aldera; izan ere, ia egunero joan behar izaten baita espetxera.

Horrek abantailak ekarriko dizkigu bi aldeei, eta balioko du, halaber, bideokonferentzia bidezko deklarazioak egin ahal izateko, lekualdatze fisikoak egin behar izan gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioak egindako eskariari erantzuteko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 23an

Nafarroako Gobernuak Justiziako zuzendari nagusia: Lurdes Aldave Villanueva

